

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Mailu bat



Igor Estankona



Hau ez da poesia

UNAI MALESKI

Poesia. Elkar, 2016

Paperaren krisiari paperean erantzuten dion liburu harrigarri bat. Unai Maleskiren (Unai Abarzuza, Iruñea 1972) *Hau ez da poesia* irakur daiteke ikuspuntu estetikitik, irakur daiteke esanahiari begira, irakur daiteke, besterik ez bada, nabaritzeko bere erregistro aberastasuna, bere irudi inflazio ederra: "Poema bat ezabatu dut./ Bere hitz guztiak eta baita/ letren arteko tartekak ere./ Kultismoz beteta zetorren,/ esamolde jatorrak,/ erreferentziak, zitak.// Borratu egin dut./ Izana ukatu diot delete tekla/ bortizki sakatuz, erruki gabe./ Figurazio erretorikoa,/ sasiintelektualkeria,/ posea ez beste, ego zikina.// Ezabatu egin dut poema,/ lotsak masailak gorritu/ eta fi te jelatu bitartean.// Poesiaren xedeaz/ eta izateko arrazoiak/ hausnartzeko zorian/ aurkitu al zarete inoiz?// Ni bai, hurbilegi, gainera./ Baina, zorionez,/ hau ez da poesia". Beraz liburua bera ukatuz hasi da Maleski, ohartaraziz hemen irakurleak aurkituko duena ez dela konbentzionala.

Edo agian poesia mailu bat dela esango lukete *arestitarrek*, Maleskiren kezka ez baita literaturaren gainekoa bakarrik, literatura pentsamendurako bide bihurtzen baitu batez ere, euskalduntasunaz, denboraz, maitasunaz hitz egiteko: "Zuntz optikoak konektatu gaitu/ baina maitasun hitzak/ bellarria ditugu nahiago.// Komunikazioaren aroa erosi dugu,/ baina zerumugara begiratu behar/ gure buruak dioskuna aditzeko".

Zentzu horretan, poesiak ematen dio halako patxada bat sare sozialek zein bere kreatibo lanak ematen ez diotena. Dena dela, igartzen zaio biak -twitter eta publizitatea-

direla bere bizitzaren parte: berehalakoa da uneka *Hau ez da poesia*, txio baten gisakoa, eta bestalde mezua zelari helarazi, kezka nagusi horixe du uneoro.

Konbinazio horretatik sortzen ditu poemak baitan, haikuak bezain iradokitzaile, irudi moderno eta era beran betikoak: "Nire etxe azpiko munipak/ talde-erretatuak egiten dizkie/ japoniar teenager-ei./ Nokia batekin". Zentzu horretan, "Abertzaletasunaren abantailak I" eta "Abertzaletasunaren abantailak II" jenialtasun hutsa iruditu zaizkit. Eta ez dira liburuko bakarrak. *Hau ez da poesia* freskoa da, eta sakona. Eta arina ere bai, fribola, entretenigarria. Ezer txarrik ez dauka horrek, kontrara, aspaldi irakurri gabea nintzen poemategi bat horrelakoa, Mikel Zarateren higidura berde baten antzekoa, ukitu mingots bat daukana azken-azken tra-goan, konturatu barik bihurtzen dena gure garai hauen laburpen. ■

Unai Abarzuza da Unai Maleski poeta, Xabier Mendiguren Elizegi editorearen eskuinean.

